

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA, PASAIAKO UDALEKO TALDE SOZIALISTAK AURKEZTEN DUEN MOZIOA.

Arrazoien azalpena

Datorren abenduaren 28an hamar urte beteko dira Kongresuko Diputatuen Osoko Bilkurak Genero Indarkeriaren aurkako Babes Neurri Integralari buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa onartu zuenetik. Herrian Lege Integrala esan zaiona akuilu bat izan da genero indarkeriari buruz alde guztietatik, eta nazioarteko eredu gisa sendotu da.

Joan den urriaren 15ean Espainiak Etorkizuneko Politikentzako Sariaren (Future Policy Award 2014) ohorezko aipamen bat jaso zuen Genevan; sari hori NBE Emakumeak, World Future Councilen eta Parlamentuarteko Batasunak ematen dute, eta emakume eta neskatuen aurkako indarkeria jazartzen duten munduko lege eta politika hoberenak saritzen ditu.

Hiru erakundeei iruditu zaie espainiar legeria, zehazki Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurrien Lege organikoa, arau garrantzikoaren eta eraginkorrenetako bat dela sexu indarkeria borrokatu eta errotik deuseztatzeko. Giza eskubideen aurkako gehiegikeria modu zabalduenetakotzat jotzen duten indarkeria.

Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko Lege Organikoa egindako hamar urteek balio izan dute erabat gezurtatzeko borroka horren aurkakoek zituzten aurreiritzietako bat, “salaketa faltsuak” direlako buruzkoa. Estatuko Fiskaltza Orokorraren azken Memoriak zalantza guztiak uxatu ditu; izan ere, txosten horretan adierazten da salaketa faltsuak 0,018% direla; aski adierazgarria emakumeen aurkako indarkerian salaketa faltsuak nagusi direla diotenak isiltzeko.

Aipatutako Lege horren aplikazioan garatu diren neurrien balantzearen arabera, garbi dago gizarte eta politika-adostasun zabal bat atxiki beharra dagoela, eta haren garapena amaitu beharra.

Alabaina, Lege Integralak duen erabilgarritasuna eta nazioartean jaso duen aitortzea gorabehera, emakumeek jarraitzen dute genero indarkeria jasaten eta

erailketa kasuak, gutxitu ez baizik gehitu egiten dira. Bakarrik abuztuan, zortzi emakume erail zituzten beren bikotelagunek edo bikotelagun ohiek, azken lau urteetako kopururik altuena.

Errealitatea hori bada ere, Lege Integrala PPren gobernuak mehatxatua dago, eta haren aurrekontu-murrizketa etengabeek orokorrean berdintasun gaitan (legegintzaldi honetan %33) eta bereziki genero indarkerian (PP gobernura heldu denetik %22). Lege hori mehatxatua dago haren espirituaren aurka egiten duten lege-erreforma jarraituek, eta baita haren artikulua askoren aurka ere, esaterako, hezkuntza hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak, Wert Legea esaten zaiona, edota Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunerako abenduaren 27ko 27/2013 Legea, bi adibide baino ez aipatzearren.

Hala, Toki Erreformaren Legeak, PPren Gobernuak oposizioarekin adostu gabe inposatu duenak, inpropiotzat jo ditu Udal eta Toki Erakundeek Berdintasun eta Genero Indarkeriaren gaitan erabiltzen ari ziren eskumenak, hartara zerbitzu publikoak emakumeen arretatik urrunduz, eta udal gizarte zerbitzuek egiten zuten atzimate, salatze eta babeste lana ezabatuz.

PPren gobernuak espainiar gizartea oso bidegurutze larrian jartzen ari da, murrizketen bidez sistematikoki genero indarkeriaren aurkako borroka desegiten aritzeaz gain, haren zimendu ideologikoak, legezkoak eta sinbolikoak erasotzen ari delako.

Lege Integrala gobernu zentralaren arduragabeziak mehatxatua dago; izan ere, diskurtso politikotik berdintasunaren printzipioa desagerrarazi du, eta era berean genero indarkeria bere lehentasunetatik.

Euskadin genero indarkeriaren kasuak, 2014ko urtarriletik urrira bitartean, 3.858 dira zoritxarrez, hots, iaz periodo berdinean gertatutakoak baino 101 kasu gehiago. Beraz, bistan dago indartu beharra dagoela prebentzio eta sentsibilizazio lana. Kasurik dramatikoena martxoaren 17an gertatu zen, Mungian Andina Reges Pereira De Brito erail zutenean. 35 urte zituen; senargai ohia dago hilketaren akusaziopean.

Era berean hagitz deitoratzen dugu Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritza ezabatu izana; izan ere, lehenbiziko aldiz ekarri zuen erantzun azkarra, eraginkorra eta aldi berean langile espezializatuak arduratzea

indarkeria matxistaren biktima izandako emakumeen eta haien haurren zaintzaz.

Patxi Lopezen gobernu sozialistak Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritza sortu zuen genero indarkeriaren biktimei laguntzeko gaietan autonomi eskumenak kudeatzeko, eta horri esker laguntza zentralizatu egin zen, hartara biktimek eskaria erregistratzen zuten sailaren arabera tratatu ezberdina jasotzea saihestuz, eta halaber leihatilaz leihatilako ibilia itzuriz.

Horregatik guztiagatik, genero indarkeriaren ahaleginak bikoiztu behar dira, lehentasun politiko gisa ezarri eta exijitu berrezar daitezela azken urteotan desagiten joan diren emakume biktimen babeserako sistemak, baliabideak eta neurriak.

1999ko abenduaren 17an Nazio Batuen Batzar Orokorrak azaroaren 25a izendatu zuenean Emakumeen aurkako Indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Eguntzat, NBEk gonbidatu zituen gobernuak, nazioarteko erakundeak eta gobernu kanpoko erakundeak herritarrak genero indarkeriaz sentiberatzeko jarduerak egitera, nazioarteko egun horretan.

Horregatik, eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean zero tolerantziak gizartearen balio bat izan behar duelako orokorrean, eta, eraginkor izango bada, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioetik ere bideratu behar denez, Udal Talde Sozialistak mozio hau aurkezten du

MOZIOA

1.-Pasaiaiko Udalak adierazten du bere oroitzapen sentikor eta minbera genero indarkeriagatik erailak izan diren emakume guztien oroimenean, eta haien familia eta adiskideei doluminak ematen dizkie.

Era berean bere arbuioa aditzera ematen du indarkeria haren agerpenei, biktimekiko konpromisoa areagotzen du eta zero tolerantzia adierazten du tratatu emaileekiko.

2.-Udal honek konpromisoa hartzen du genero indarkeria borrokatzeko baliabideak, zerbitzuak eta aurrekontuak ez murrizteko, eta:

- tokiko esparrutik genero indarkeriaren inguruko, hura atzeman eta biktimak eta adingabeak babesteko, sentiberatzea bultzatzeko.
- Babes Integraleko Neurrien Legearen aplikazioa bultzatzea toki, autonomia eta estatu mailako botere publiko guztiekiko elkarlanean.
- Erreklamatzeko Udalek eta tokiko erakundeek Berdintasun eta Genero Indarkeriaren gaineko eskumenak berreskura ditzaten, eta halaber gainerako administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa bere osotasunean aplikatzeko asmoz.

3.-Udal honek Eusko Jaurlaritzari exijitzen dio:

- Genero indarkeriaren prebentzioa eta biktimekiko arreta benetako lehentasun bilaka daitezela.
- Organo bateratu bat bertatik abian jar dadila, leihatila bakarra, era honetako indarkeriaren biktima diren emakumeei, eta haien seme-alabei erantzun osoa eta eraginkorra emateko.
- Eratzen den organoa izan dadila baliabideak gainbegiratu, koordinatu eta indarkeria matxista kasuak prebenitu, sentiberatu eta artatzeko programak gauzatuko dituen.
- Ertzaintzaren Unitate espezializatu bat era dadila. Horretaz gogorarazi behar da Genero Indarkeriaren gaineko Lege Integralak behartzen duela era horretako unitateak sortzea.

4.-Udal honek estatuko gobernuari exijitzen dio:

- Neurri guztiak har ditzala Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa eraginkorki aplika dadin.
- Murriztutako aurrekontu-funtsak berrezar ditzala.
- Genero indarkeriaren kasu guztien jarraipen integraleko sistema gara dezala.

- Bitarteko telematikoen ezarpena bultza dezala, eta ezarpen hori ebalua dezala Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrearekin elkarlanean.
- Egungo koordinazio protokoloak berrikus eta ebalua ditzala haien eraginkortasuna handitzeko, eta haren aplikazioa bermatzeko lurralde guztian.
- Eusko Jaurlaritzarekin batera bultza dezala genero indarkeriaren balorazio integraleko unitateak ezartzea, Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzak egindako lanaren ildoan.
- Indarkeria horri aurka egiteko esku hartzen duten profesional guztien prestakuntza eta espezializazioan aurrera egin dezala, eta berma dezala indarkeria honen aurka garatzen diren egituren zeinahi aldaketak ez dezala espezializazioa galdu.
- Berma dezala etxeko indarkeriaren eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako borroka eta prebentzioaren gaineko Europako Kontseiluaren Hitzarmena betetzea.
- Erreformak egin ditzala Zigor Kodean, Botere Judizialaren Lege Organikoan, Kode Zibilean, Prozedura Zibilaren Legean eta Prozedura Kriminalaren Legean, beren familia-gunean genero indarkeria jasaten duten adingabeen segurtasunaren babesa eta lege-tutoretza eraginkorrago egiteko, Epaileak seme-alaben zaintza araubidea, bisita eta hezkuntzaren gaineko neurri berariazkoak hartzea ziurta dadin, eta halaber, behin-behineko neurri zehatzak, laguntza eta gizarte babes integraleko beste neurri batzuk barne.
- Indarkeria matxistagatik kondenatuei seme-alaben zaintza kentzea.
- Erabaki hau Gorte Orokorretako Berdintasun Batzordeari bidal dakiola.

Pasaian, 2014ko azaroaren 4an.

Izaskun Gómez Cermeño

PASAIKO PSE-EEko eleduna